

Untzi Museoak pieza bat itzuliko dio Espainiako Antropologia Museoari, irailean

Donostiako Untzi Museoan ikusgai dagoen Euskaldunak eta Pazifikoa. Andres Urdanetaren omenez erakusketaren parte den Tahitiko erritu goporra Madrilgo Antropologia Museora itzuliko da, irailaren 3an.

Kontserbatze arrazoiak direla eta, Untzi Museoak goporra itzuli egingo du Antropologia Museoarekin hitzartutako mailegu akordioa betetzeko. Maurua uharteko (Tahiti) erritu goporra da, dolerita harrizkoa, eta antropologiarako balio paregabeko pieza da. Izan ere, mundu osoan behar bezala gorde den tipologia honetako pieza bakarra da. Zeremonia sakratuetan erabiltzen zuten, kavarako ontzi gisa. Kava Piper Methyssticum landarearen sustraiz egindako infusioa zen, eta tribuko buruzagiak hartzen zuen arbasoen jainkoekin identifikatzeko. Goporra Tahitiko Tu erregeak eman zien 1774an Getarian jaiotako Domingo Bonetxearen aginduetara zihoazen espedizioko kideei, Karlos III.a erregearentzako opari gisa.

Irailaren 2ra bitarte

Erritu goporra ikusteko azken eguna irailaren 2a izango da, asteazkena. Bestalde, Euskaldunak eta Pazifikoa. Andres Urdanetaren omenez erakusketak Ozeano Barean izandako euskal presentziaren historiaren ikuspegi panoramikoa ematen du. Besteak beste, Filipinar uharteetan, Amerikako kontinenteko mendebaldeko kostaldean eta Txina hegoaldeko kostaldean izandako presentzia. Hain justu, erakusketak euskaldunek nabigazio eta merkataritzarako ibilbide berriak aurkitzen betetako eginkizuna azaltzen du. Pertsonaiei dagokienez, Juan Sebastian Elkano, Andres Urdaneta eta Migel Lopez de Legazpi nabigatzaileei buruzko atal bereziak ere baditu erakusketak.